

BETERRIKO ALDIZKARIA

# AIURRI

1995ko apirila. 12. zenbakia. Doan banatzen da.



Foto  
Echarrri



•ORDUBETEAN ERREBELATUA •ARGAZKI ESTUDIOA •LEHEN JAUNARTZEAK  
•EZKONTZA ERREPORTAIK •MARKOZTAKETA •ANPLIAZIOAK BEREZIKI

Elizondo Plaza, 2 atzealdea ☎ 59 41 48 - ANDOAIN

Juan de Urbietta, 8 - ☎ 55 29 39 - HERNANI Kale Nagusia, 17 - ☎ 36 14 84 - LASARTE





MLARAVENDI



MLARAVENDI

**MANUEL  
LARRAMENDI**

**Kultur Bazkuna**

*ZU BAZKIDE  
EGIN ZAI  
GAUDE*

Euskaltzaleon elkarteak.

ADUNA, ANDOAIN, ASTEASU,  
BILLABONA, LARRAUL, ZIZURKIL

Egoitza orokorra: Dr. Huizi kalea, 15-1, ANDOAIN ☎ 30 07 33




# Aurkibidea

1. **AURKIBIDEA.**  
**AIURRITARRAK.**  
Hamabosteroko zita
2. **INKESTA.**  
Eta zuk, nola bizi dituzu Aste Santuak?
3. **LARRAUL.**  
Bide berriak baserrietara.
- 4-5. **ANDOAIN.**  
Tren Txiki eta AHT.  
Lanbide hastapeneko tailerrak.
6. **ASTEASU.**  
Herritarrak Repsol Butano-rekin haserre.
7. **BILLABONA-AMASA.**  
Kutxaren goiko etxebizitzak erreta.  
Juan Mari Etxeberria presoarenegoera.
8. **ZIZURKIL.**  
Kultura herritarren eskura.
- 9-10. **ERREPORTAIA.**  
Beterritik Argentinako pampara.
11. **BASERRIA.**  
Baratza, fruitu arbolak, lorategia.
- 12-13. **KULTURA.**  
Begoña del Valle margolaria.
14. **SUKALDEA.**  
**ARGITALPENAK.**
15. **ZURE HIZPIDEA.**
16. **AGENDA.**

**Argitaratzailea:** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31  
**Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia.  
**Erredakzioa:** Antxiñe Mendizabal, Amagoia Mujika, Ainhoa Oiarzabal **Argazkiak:** Manu Mujika. **Komikia:** Iñaki G. Erro. **Publizitate arduraduna:** Mailu Ibarbia.  
**Banaketa arduraduna:** Iñosken Mujika.  
**Administratzaile-eragilea:** Kepa Sarasola.  
**Inprimategia:** Gertu Kopp. E. (Zubillaga, Oñati).  
**Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 **ISSN:** 1134-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

# Aiurritarrak

## HAMABOSTERO!



**NOBIO HASIBERRITAN** BEZALAXE urtebete jo dugu hilean behin zuen etxeetara formal-formal sartzen; ez zegoen konfidantzarik maizago egiteko. Bolada luze horretan harrera ezin hobea egin diguzue, eta, azkenik, apur bat lotsagabe, gure kontura erabaki dugu hilean behin baino hamabostean behin egitea bisita zuengana. Ho-

rrexegatik, aurrerantzean, hamabostero edukiko gaituzue zain buzoietan. Eta ez, gainera, halamoduz; dotoreago eta argaldurik baino, holako zita baterako behar den legez. Hori da, bai, AIURRIren geroa..., zuek hala nahi baduzue behintzat!

Baina ez gero pentsa gure erromantze honetan trabarik izan ez dugunik: ene Jaungoikoa! Bazter guztietan kontrinkantea beste ez dugu izan, denak zain hankatraba egin eta gure aurretik lore-erramuarekin korrika batean atera nahian. Eta beti horren belduz: noiz geldituko malapartaturik bazterrean!

Ez da ez, alajaina, erraza izan orain arte AIURRI-n egin behar izan dugun bidea, sei Udalekin tratua itxi ondoren hor etorri baita gure erronka: urtebetez hilean behin eta aurrerantzean hamabostean behin aldizkari hau argitaratzea Larramendi Bazkunaren patrikatik ere milioi asko jarritz.

Udal guztien artetik -hau esan beharra baitago- bakarra izan da behin eta berriz hitza jan eta konbenioa betetzeko arazoa baino jarri ez duena: Andoaingoa. Gainerakoak oso jator jokatu dute horretan. Aldizkariaren geroa, alabaina, Andoaingo Udalak egin behar duen aportazioaren baitan dago, eta 1995. urteari dagokiona emateko oztupoa eta traba baino ez digu jartzen, behin eta berrero bilera egiten dugun arren. Eta ez omen dago batere arazorik, hori da ederrera! Kultur Bazkunak 26 orrialdeko konbenio bat alfer-alferrik idaztea: hori bai gauza tristea!

Tira, ongietorria...

Jon Unanue Lopez

**OHARRA:** Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Egutzatzaile du.



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamenduaren laguntza jasotzen du.

## Eta zuk, nola bizi dituzu Aste Santuak?

Bertan dugu Aste Santua, eta baita Aste Santuko oporraldiak ere. Egun horietan jendeak zer egin ohi duen jakin nahi izan dugu oraingo honetan: elizkizunetan parte hartzen al duen; egun bereziak al diren; edota besterik gabe oporrak hartzeko garaia baino ez den. Entzundakoaren arabera,



### **Arantxa Galdos. Etxekoandrea. Zizurkil.**

Zaharrak joaten dira elizara, ohitura hori edadetuen artean bakarrik gordetzen dela uste dut, baina guretzat oporretara joateko aitzakia da. Bi edo hiru egun Errioxa aldera joan go gara familia guztia.



### **Juan Inazio Urkola. Baserritarra. Asteasu.**

Aste Santuan elizara joan behar dela esaten du apaizak, eta gu elizara joaten gara gerorako obra onak egitera. Errezatzen dugu eta Jaunari eskerrak ematera joaten gara. Egun hauek bereziak dira, baina hala ere elizara maiz joateko ohitura daukagu.




### **Garbiñe Garmendia. Klinika laguntzailea. Billabona.**

Oporretara joateko aukera bat da. Lau egunerako Asturias aldera joango gara, mendira. Berez Aste Santuak niretzat duen zentzia, jai egunak egiteko aprobetxatzea da. Ez dakit jendeak izango dituen ohiturak. Nire inguruan behintzat, normalean eta egun hauetan ere, ez dugu elizara joateko ohiturarik.



### **Unai Goikoetxea. Tabernaria. Aduna.**

Berdin, berdin. Hemen gelditzen gara eta mendira irteerak egiten ditut. Egun horietan hemen egoten da inon baino hobeto. Ez zait iruditzen Aste Santuak halako santutasunik duenik. Ez gara elizara joaten, ez egun horietan eta ez bestetan ere.



### **Antonio Girol. Ikaslea. Andoain.**

Aste Santuan herrira joango naiz, Palenciara. Aste Santukoak egun normalak dira. Opor egunak dira eta hori da gauza berezi bakarra. Elizkizun batzuetara joateko ohitura ere badaukat.



### **Dioni Alonso. Etxekoandrea. Andoain.**

Nik kanpora joateko aprobetxatzen dut, urtero joaten naiz kanpora. Gainerakoan ez dauka beste esanahi berezirik. Oporrak hartzea, horixe da bere esanahi guztia. Elizkizunetan ere ez dut parte hartzen.

# Litawna

KIROL JANTZIAK

Ama Kandida etorbidea, 6  
Posta kutxatila 110 - ☎ 59 44 47  
ANDOAIN


# BENITO

HARATEGIA  
URDAITEGIA

KALE NAGUSIA, 22 ☎ 69 11 49  
ARROA KALEA, 4 ☎ 69 13 50


BILLABONA





## Bide berriak baserrietara

Herritar guztiak ongi komunikaturik egongo dira bide berriei esker



*Bide ugari konponduko dute*

Larrauli herriko ingurunean, zenbait baserri nahiko isolaturik daude. Herritik oso urrun ez badaude ere, kotxez abiatuz gero, ezin da lasai, ziurtasun osoz, edota azkar, presaren presaz gidatu, eguraldi txarraz lokaztu egiten baitira eta denboraren poderioz belarrez betetzen. Batzuk konpondu eta besteak berriak egin, horixe da hain zuzen ere hilabete honetarako udalak duen proiektua.

Asteasutik gorako bidea hartuz gero, bihurgunez bete riko bide aldapatsua dugu Larraulera heldu arte. Garai batean, bertara iristea nahiko zaila izango zela pentsatzen dugu. Hala ere, gaur egun paraheen izaerak eskaintzen dituen zailtasunak nolahi ere gaindituta daude bertako bideari esker.

Hala ere, Larraulgo herrian sartzen garenean, herriko plaza, udaletxea eta inguruko etxebizitzetaz gain, baserri asko daude bertatik ikusi ere egiten ez direnak. Baserri horietara hurbiltzeko zailtasun handiagoak daude gerturatzeko bideak duten egoera txarra dela eta. Egunero bertara joan-etorrian ibili behar duenarentzat nahiko astuna izaten da, askotan neketsua, eguraldiaren arabera ere arriskutsua gerta daitekeelarik zenbaitetan.

Ez dira bide asko baina beharrezko eginbeharra iruditu zaio Udalari, herritar guztiak alde batetik bestera ibiltzeko trabarik izan ez dezaten. Batzuek galipotaz egingo dira eta zaharkiturik dauden bideak konpondu egingo dituzte.

### Konponketak

Erreka bailaran, Txuringain erroarako bidea egingo dute, baita erreka ingurua konpondu ere. Hiruzpalau baserrietara doazen bideak herrituko dira, baserri horiek herriko gunetik gertu badaude ere, bideak egoera oso txarrean daude. Etxe berri batera doan bidea ere berria egingo dute, lokaztu egiten baita beti. Larraulgo herrira bertara doan bide zaharra ere, txukun-txukun jarriko dute. Orain, Ugaldetik herrira gerturatzeke bide hori erabiltzen ez bada ere, oinezkoentzat toki aukeratua izan ohi da beren paseoetarako. Denborak belarrez bete du lekua eta orain belarra kendu eta konponketak egin ondoren, prest geratuko da gustora ibili ahal izateko.

Beraz, konponketa horiek egin ondoren, bide onak eta ero-soak, azkarrak eta ziurrak izango ditu Larraulgo herriak. Egunero erabili behar dituen herritarrak arazorik izan ez dezan, eta bertako paraheak ezagutzera joateko nagikeriarik izan ez dezagun.

**PATXINE JATETXEA**

GURE BEREZITASUNA: EUSKAL SUKALDARITZA ETA ETXeko POSTREAK

Erremontari,1 - ☎ 69 10 25 - ASTEASU

**LOATZO ASEGURUAK - ASESORIA**

**ZURE ETORKIZUNA BIZI ASEGURUA**

JOXERRA GARMENDIA MUJIKA  
IBON GARMENDIA UGARTE

Antxin kalea, 3 beheka - ☎ 69 39 13 - Faxa 69 38 43 BILLABONA

**NISSAN**

**DANIEL BARCOS, S.A**  
KONTZESIONARI OFIZIALA

Paseo de colon, 44  
☎ 27 42 17 - 28 14 54  
Fax 27 33 11  
20002 DONOSTIA

Pol.Industrial, z.g  
☎ 69 15 94 - 5  
Fax 69 24 91  
ADUNA

**Joxe Mari ITURRALDE**

ZURGINDEGIA

Formika lanak, sarrerako eta barruko ate mota guztiak eta edozein zurgintza lan.

ADUNA - ☎ 69 20 81





# Herriz herri

# Andoain

## Lanbide Hastapeneko Ikastetxea

Txapa eta margogintza, eta iturgintza ikastaroak



*Karrozeria lanak*

1986ean sortu zen ikastetxea. 16-19 urte bitarteko gazteei dago zuzenduta, oinarrizko ikasketak egin eta eskola utzi ondoren langabezia dauden neska-mutilei. Ikastetxearen helburua, hala ere, ez da gazteek ofizio bat ikastea soil-soilik, lan merkatura jotzeko baliabide batzuk eskaintzeaz gain, beste era bateko laguntza berezia behar izaten duten gazteak dira eta arlo horretan ere lagundu nahi izaten zaie. Normalean ikasketekin batera identifikatu ez diren gazteak dira, hala ere, kasu batzuetan ikastetxetik igaro ondoren, ohizko ikasketetara berbideratzen saiatzen dira, ikasleek horretarako aukerak eta gogoia izanez gero, behintzat.

Automobilan txapa eta margogintza, eta iturgintza ikastaroak dira ikastetxeko ohizko ikastaroak. Dena den, ofizio horiek ikasteaz gain, oinarrizko hezkuntza ere eskaintzen zaie, eta lanpostua aurkitzeko teknika ikastaroa. Aurten lehenengo aldiz, gainera, Andoaingo ikastetxea eskualde mailan ari da lan egiten, era honetan herriko ikasleak Lasarte-Oria eta Hernanira joateko aukera ere badute beste ikastaro batzuk egitera.

### “Ikasketa kontratua”

Lan merkatuarekin ikasle hauek lehenengo harremana Eusko Jaurlaritzak finantzatzen duen “ikas-keta kontratuaren” bitartez izan ohi dute. Era horretan enpresaren baitan lan egin ondoren, kasu batzue-

Laborde anaien pabiloietan dago Lanbide Hastapeneko Ikastetxea. Hogeita hamasei ikasle ari dira gaur egun ikastaroetan parte hartzen. Gehientsuenak ikasketak goiz samar utzitako neska-mutillak dira, ofizio bat ikasi eta lan merkatuan aukeraren bat izatearren ikastetxera jo dutenak. Garai honetan ikasturte erdian daude murgilduta. Hango martxa ezagutzeko jo dugu Hilario Dorronsoro ikastetxeko arduradunarengana.

tan bertan jarraitzeko aukera izaten dute, gainerakoan, beste ate batzuk jo behar izaten dituzte, edo euren kasa lanean hasi. Emaitzei buruz hitz egiteko eskatu diogu Hilario Dorronsorori eta lanari dagokionez, orain arte behintzat, emaitzak nahiko onak izan direla esan digu, “ikasketa kontratua” nahikoa ikasleek lortu ahal izan dute.

Aipagarria da Andoainean Lasarte eta Hernanirekin batera ikastetxe mota hauetara ikasle kopuru handien jotzen duten herriak direla. Beste datu batzuek, “eskola porrota” deitzen dena herri hauetan oso portzentaia altuak dituela adierazten dute. Hilariok bien artean nolabaiteko harremana badagoela esan digu.

  
**ILLUMBE, S.L.**  
Autoelektrizitatea



**LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK**  
Pablo Gorosabel, 48  
☎ 65 54 76 **TOLOSA**  
Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa  
☎ 59 24 11 **ANDOAIN**

**LIBURUDENDA**



**LIBURU AUKERA  
EDERRA PRESTATU  
DUGU ZURETZAT**

Agustin de Leitza 27 ANDOAIN % 59 16 03






## AHTren aurkako asanblada sortu berri da

### AHTren mozioari batek bai; lauk abstentzioa

**HBren aldeko botoekin onartu du Udalak Abiadura Handiko Trenaren aurkako taldeak aurkeztutako mozioa. Gainerako alderdiek abstentzioa eman diote proposamenari. Proiektuan parte hartu duten erakundeei informazio eskaria egitea, informazio hori herritarrei zuzentzea, orain arteko erabakien deuseztea, eta gizartean eztabaida zabala bideratzea dira mozioaren punturik garrantzitsuenak. Abstentutako alderdiek informazioa eskatzearen alde egon arren, mozioa AHTren aurkako taldeak aurkeztu izanak, taldea berez, informazioa egon ala ez, trenaren aurka dagoela pentsarazi die, eta beraiek printzipioz, proiektuaren aurka ez daudenez, arrazoi horregatik abstentitu dira.**

**M**ozioak honako puntu hauek biltzen zituen: lanak eragingo dituen kalte ekologikoak zehaztea; trenbidearen trazaketa erakusten duen mapa salatzea, izan ere legeak agindu baino askoz ere eskala txikiagoan dago eginda eta ez da batere zehatza; proiektuaren egungo egoera ezagutzera ematea; Europako kontseiluan erabakiak hartzen ari diren bitartean euskal erakundeek inolako partehartzerik ez izatea; aipatutako arrazoiengatik orain arte hartutako erabakiak balio gabetzea; gizartean eztabaida zabala irekitzea; eta herritarrei informazioa bideratzea.

Alderdi guztiek adierazi zuten egun dagoen informazioa oso urria dela eta guztiak ari direla informazio biltzeko ahaleginetan, baina HBri ezik, guztiei iruditu zitzaizkien moziok beste asmo bat ere bazuela, alegia, alderdiak AHTren aurka agertzea. Eta horixe izan zen euren abstentzioaren arrazoia.



#### AHTren aurkako taldea

Mozioa aurkeztu eta egun batzuetara egin zuen AHTren aurkako taldeak aurkeztu penan herrian. Kultur Etxean bideo bat aurkeztu ondoren, dagoen informazioaren arabera, Andoainen tren nondik nora igaroko den erakusten zuen maketa erakutsi zuten. Aurrerantzean Gaztetxean bilduko direla adierazi zuten, interesatuak taldera biltzera deituz.

Bide batez, apirilaren 28, 29 eta 30ean Arrasaten "Abiadura Handiko Trena eta desarrollismoa" lemapean izango diren topaketetara gonbidatu dituzte proiektuarekin bat ez datozen talde, erakunde eta herritar guztiak.

## Udala Tren Txikiren ekimenaren alde

Leongo Cubillos herrian dagoen Tren Txikiren 31. lokomotorea Euskal Herrira ekartzeko andoaindar batzuek osatu duten taldeak aurkeztu berri du Udalean mozio bat. Alderdi guztiek onartu dute idatzia aho batez.

Taldeak joan den abenduan ekin zion sinadurak biltzeari eta Castilla-Leongo Juntaren eskuetara iristaraztea da beren asmoa. Azken helburua lokomotorea Azpeitiko Trenbide Museora eramatea da. Udalak herri ekimena bultzatzea eta erabaki hori komunikabide eta herritar guztie jakinaraztea onartu du.

#### Proposamenak

Dena den, ekimena bultzatzeaz gain, alderdi politikoetako kideak bestelako zehaztapen eta ekarpenak ere egin zituzten: EAJ-PNVko Juan Mari Artolak gai honen inguruan EAeko eta Nafarroako gobernuek elkarlana egitea proposatu zuen, eta lokomotorea ekartzea lortuz gero, Leitzaranen, bi herrialdeen artean dagoen muga Plazaolako geltoki zaharrean jartzea ideia ona izan zitekeela adierazi zuen. EAko Xabier Huizik herritarren ekimena ezezik, erakundeen partehartzea ere garrantzitsua dela azpimarratu zuen. Eta Tren Txikiren gaiaz gain, Leitzaran bailarako beste arlo batzuk bultzatzeko ere inguruko zenbait herri elkartu eta horren guztiaren alde ahalegintzeko fundazio bat sortzea ideia ona iruditu zitzaion. HBko Gotzon Garmendiak ekimena herritarrek osatutako taldearen eskuetan egon behar dela azpimarratu zuen, eta beraiek laguntzeko prest daudela. PSE-EE eta EuEko kideak moziok esandakoarekin bat etorri ziren.






# Herriz herri

# Asteasu

## Herria haserre Repsol Butano-rekin

Kexak eta eskakizunak Udalak bideratu ditu



*Polemika piztu duten gas zisternak*

**H**erritarrak ez daude gasa jartzearen aurka, zenbaitzuk aspalditik jarri nahi baitzuten eta beren etxe partikularretan jartzekotan zeudenak ere baziren. Baina herritar guztiei aukera eman nahian eta gas naturala Asteasutik ez zenez pasatzen, Repsol enpresari eskatu zitzaion bertan gasa jartzeko lanak egitea eta horren ardura izatea. Enpresa hori gasa herrian zehar banatzeko beharrezkoa den instalakuntza egiten hasi zen, alegia hori izan zen herritarren haserrearen piztu duena. Esate baterako, bi gas zisterna handi jarri zituzten herritik ahalik eta gertuen, gertuago egonik, instalakuntza sinpleagoa baita, obra gutxiago eta diru gutxiago kostatuz. Zisterna horiek herriko sarre-

ran daude, zelaiaren erdi-erdian eta kokatuta dauden lekua egokia ez dela adierazteko egin dira pintadak. Ondorioz, Udalak bitartekari lanak egingo ditu Repsol eta herritarren artean, asteasuar guztiei eskatu baitie dituzten kexak Udalera bideratzeko.

### **Sinadura bilketa**

Herritar batzuek idatzi amankomun bat plazaratu dute sinadura bilketari ekiteko, presio gehiago egin nahian. Idatzi hau Repsol Butanori eta bertako ordezkaria den Isidro Fernandezi zuzenduta dago.

Bertan, jendearen informaziorako epea zabaltzen dela diote iharduera nekagarri, kaltegarri, osasunkaitz eta arriskutsuen arautegiaren arabera, eta ondorioz, honako hau adierazten dute

Asteasuko herritarrak ez daude oso gustora herrian gas propanoa jartzeko Repsol Butanok eginiko lanekin, polikiegi eta irregulartasun ugari egiten ari baitira lanean. Lehenik, Elizmendi inguruan dauden gas zisternetan ezezagun batzuek pintadak egin zituzten, beren kokagunea egokia ez zela adierazteko. Eta gauzak horrela, aurretik pentsatuta egon arren, herritar guztiei kexak eta eskakizunak bideratzeko aukera eskeini die Udalak.

herritarrek; egungo biltegiei kokapen berria emateko eta lanak oso mantxo doazela: « Lanek garajeetako sarrerak 10 egun baino gehiagotan oztopatu dituzte » diote. Zenbait irregulartasun ere salatu dituzte: «Kanalizazioak edonondik eraman dituzte, oso sakonera eskasa eman diete...».

Zintzilik gelditzen den konturik bada ordea, kexak eta eskakizunak onartuz gero ea nork ordainduko duen zisternak lekuz aldatzeko kostua eta ea benetan instalakuntzak egokiak al diren gas propanoa bertatik igarotzeko. Hori, lanak bukatutakoan Eusko Jaularitzak baimenduko du, instalakuntzen azterketa egin ondoren.

**AURRERA**  
**TABERNA**

Girorik ederrena gazteriarentzat!!

**ZIZURKIL**

**KARROZERIAK**  
**LAGUNAK<sup>S</sup>**

**TXAPA ETA PINTURA**  
EGA ZERBITZU OFIZIALA  
FURGOI ISOTERMIKOAK  
HOZKAILUAK

SORABILA AUZOA - 53. POLIGONOA - ☎ 59 44 48 - ANDOAIN





## Kutxari su eman, etxebizitzak hondatu

### Gertaerek haserrea eragin dute Billabonan

Tolosaldean greba orokorra izan zen martxoaren 24ean Lasa eta Zabalaren gertaeren ondorioz. Gauean Billabonan pertsona batzuek kontainer bat hartu eta Kale Nagusian dagoen kutxako kristalak apurtu ondoren, bi koktel bota zituzten barrura. Kutxan sortutako suak goiko etxebizitzak ere hartu zituen eta bertan bizi direnak senitartekoen etxeetara joan behar izan dute, bertako kalteak konpontzen dituzten bitartean. Hurrengo igandean herritar ugari bildu zen Kutxaren aurrean ekintza salatzeke.

Kutxa sukurtsalera botatako koktekek barruan zeuden altzairu eta moketak erre zituzten, sua bizituz. Su garrak goiko etxebizitzetaraino heldu ziren. Lehenengo solairua erre egin zen eta bigarrenean heldu zen sua. Etxebizitza guztiak kalteen ondorioz hutsik geratu dira. Bigarren solairutik gorako etxebizitzak erre ez badira ere, kable elektrikoak kaltetu ditu suak.

#### Ez ohizko udalbatza

Gertaeren ondoren, hurrengo egunean ezohizko udalbatza egin zen. Bertan, gertatutakoak justifikaziorik ez




zuela eta salatu behar zela aipatzen zuen mozio bat aurkeztu zuen Gobernu Batzordeak. Alderdi guztiak mozioaren alde agertu ziren, Herri Batasuna ezik, azken honek gertaerak testuinguru jakin batean ulertu behar direla eta inoren gustokoak ez badira ere Euskal Herriko egoeraren ondorio direla argudiatu zuen.

# Billabona-Amasa

## Juan Mari Etxeberria presoaren egoera

### Baldintzapeko askatasuna ukatu zion epaileak



**Juan Mari Etxeberria Billabonarrak bederatzi urte daramatza preso. Atxilotu eta bi urtera eskizofrenialdi bat izan zuen. Bere egoeratik kalean egon beharko luke, hala ere ezarri zioten zigorra bete arte ez dute aske utziko.**

1986ko urriaren 3an atxilotu zuten Billabonan eta hamabi urteko gartzela zigorra ezarri zioten. Atxilotu eta bi urtera eskizofrenialdi bat izan zuen. Gartzelako egoera gogorraren ondorioz eta gaur hartan preso zegoen Mikel Lopetegi lagunaren heriotzak bere buruaz beste egiteko saiakerak eragin zizkion. Or-

duztik, tratamenduan dago, baina senitartekoen baldintzapeko askatasuna eskatu zuten.

#### 60. artikulua aplikatzeko eskaera.

Espetxeetako araudiaren 60. artikulua aplikatzea eskatu zuten senitartekoen. Artikulu hori, besteak beste, gaisotasun larria duten presoek ezartzen diete baina epaileak ezezkoa eman zuen.

Senideak eta Amnistiaren Aldeko Batzordeak zenbait ekintza antolatu dituzte oro har presoaren egoera eta disperzioa salatu asmoz, apirilaren lehenean egin zen zortzi orduko enkartzelada, besteak beste.

Egun, Juan Mari Etxeberriak ongi dagoela esaten du idatzitako eskutitz batean. Malagako espetxean dago eta datorren irailean bete beharreko zigorraren hiru laurdena betetzen du.

**JOSEBA**  
**Altzariak**  
KALETXIKI, 6 ANDOAIN  
FAX ETA TELF. 59 07 61

*Ageltzaritza*  
**M. USABIAGA**  
Leku eder Etxea - Elbarrena Auzoa  
☎ 69 35 60 - 69 34 35  
20150 ZIZURKIL (GIPUZKOA)

**HEERI OSTATUA**  
• Taberna  
• Jatetxea  
  
HERRIKO PLAZA - ☎ 69 18 55 - LARRAUL





# Kultura, herritarren eskura

### «Maiatza saltsan» prestatzen ari dira herritarrak

**Izenburu honen pean hainbat ekitaldi egin ziren iaz, herriko talde ezberdinek parte hartu zuten ekimenean. Helburua gai kulturalak lantzea da, eta egun interesa duten ekintzak burutzea da beren ezaugarriarik adierazgarriena, adin eta izaera ezberdinetako zizurkildarrak biltzen dituzten talde hauen bidez.**

**K**ostata gazte asanblada, Darena kirol elkarte, Urka mendi elkarte, Pedro Maria Otaño eta San Millango guraso elkarteak eta Sortzaile kultur elkarteak aritu ziren ekimenak prestatzen. Hone-la, herritarren intereseko gaiak eta gehienbat kultur arloa herritarren artean dastatzeko aukera paregabea izan genuen. Zizurkil goiko Iriarte Etxea inauguratu zen egun horietan, Kultur Etxearekin bat, kultur ekime-

nak garatzeko gune izan zirelarik. Aurten ere bertako ateak zabalik izango ditugu, nahiz eta ekimen batzuk kalean egingo diren.

#### Kultura kalera

Kultura herritarrei hurbildu nahian, tabernetan musika zein antzerki saioak burutuko dira, «Zizurkilen ezer ez eta festa» lemapean. Oraingoz, Aurrera, Zentroa, Izarra eta Behibategi taberneak ziurtatu dute saio hauek egiteko lekua. Ekitaldi horiek maiatzetik uztaileara bitartean izango dira, eta taberna bakoitzak bere saioak ordaindu beharko ditu.

Baina maiatzean gauza gehiago ere izango dugu. Iaz bezala, herriko talde ugari ari dira ekitaldiak prestatzen eta aipatzekoa da Kostata gazte asanbladak prestatzen dituen ekintzak, hilabete honetarako egingo dituzten gain. Martxoan gazte asotea ospatu zuten, diapositiba emanaldiak, «Philadelphia» filmaren proiektzioa, ume jokoak eta «Goenkaleko» aktore gazteen hitzaldia izan ziren. Argazki zaharren

erakusketa ere egin zuten eta Sortzaile kultur elkarteak ere maiatzerako antzeko ekimen bat egin nahi du. Zizurkilgo argazki zaharrak bildu nahi ditu lehengo garaiko parajeak eta pertsonaiak ezagutarazteko.

Bestetik, urteroko antzerki astea «Maiatza saltsan»eko beste osagarri bat dugu. Haurren antzerkia izango dugu nagusi, eskolatako haurren eta Kultur Etxeko antzerki tailerraren antzezlanak ikusteko aukera izango da.

Gogoratu beharrekoa da San Isidro eguna maiatzean dela eta goikoek, Zizurkil Zutiken bitartez jai giroko ekintzak eramango dituzte aurrera.

Beraz, asmo eta ideia ugari dauka maiatzerako baina aurtengo ekitaldiek badute iazkoetatik bereizten dituen zerbait; dirulaguntzak. Aurten, talde bakoitzak ordaindu beharko ditu egiten dituen ekintzak eta Udalak propagandarako eta beste zenbait gauzetarako soilik emango du dirulaguntza.

**ER.NIOBIDE**  
JUAN CARLOS ARICETA

**ZURGINDEGIA**

-Erreformak oro har  
-Neurrira egindako armairuak

Agaraitz auzoa, 2/g - ☎ eta Faxe 69 26 75  
BILLABONA

**KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA**

**KIROLAK EDURNE**

KALETXIKI, 6 - ☎ 59 19 58

**ANDOAIN**

**Orumendi Kirolak**

**AUKERA ZABALA  
KIROL ARTIKULUETAN**

JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF. 59 18 06 ANDOAIN

**Juan Bautista ORMAZABAL**

**PINTURA LANAK ORO HAR**

**Profesionalak gara**



## Beterritik Argentinako *pampara*

Hamabi urte Argentinan egon ondoren etorri dira lehenengo aldiz jaioterrira

**Jexux Iturbe zizurkildarra eta Gema Garmendia asteasuarra orain dela hamabi urte joan ziren Argentinara batek 22 urte eta besteak 18 baino ez zituztela. Gerra garaian bertaratutako osabengana joan ziren. Geroztik familia bat osatu dute Joseba eta Ivone beren bi seme-alabekin, eta haxe izan da jaioterrira itzuli diren lehenengo aldia. Hilabete t'erdi egin dute etxean familia ikusten eta bizilagunei *pampako* bizimodu berriari buruzko era guztietako xehetasunak emanez, Asteasu eta Zizurkilgo lagun jakinmina ez baitzen txikia. Kontatu digutenez ia egunero ibili dira batean eta bestean bazkariak eta afariak eginez. Aspaldiko lagunekin elkartu, eta pentsatzen dugu, garai bateko pasadizuren bat baino gehiago ere gogoratuko zutela. Gu ere jakinminez hurbildu gara beraingana; zizurkildar eta asteasuar bikote baten gora-beherak ezagutu nahi izan ditugu urruneko Argentinako Santa Fe probintziako herri txiki batean.**



Rosarion

**B**aserrian jaioa da Jexux eta bertan lan egindakoa. Argentinan ere *tambo* deitzen dioten baserri baten jabe da. *Tamboak* normalean lur sail zabalez inguraturta egoten dira, eta senar-emazteak 100 buru behi eta txekor, eta 250 lur hektarea daukate beren kargu. Hasieran ganadua hazi eta haragitarako saltzen zuten -haragia da Argentinako ekoizpenik nagusia. Gaur egun ordea, esnetarako daukate azienda. Bestalde, lur sail ugarietan zitu eta labore ezberdinak lantzen dituzte. Orain dela urte batzuk *tamboan* lan egiten laguntzeko langileak zeuzkaten, gaur egun bakarrik egiten dute lan.

### Hura eta hau oso ezberdin

Dena den, hango eta hemengo nekazaritza oso ezberdinak dira: ganaduari dagokionez, han ganadua ez da hemen bezala estalpean egoten, belardi zabaletan baizik. Lur sailak oso handiak dira eta han erabili beharreko traktore eta bestelako tresneriak ez dauka hemengoarekin zerikusirik. Eguraldia ere oso da ezberdin; hemen oraingo eta lehengo egu-

raldiak aldaketarik ezagutu badu ere. Klima tropikala da hangoa.

### “Han askoz ere konformeago bizi dira”

Hango bizimoduari buruz galde-tuta, erantzuna berehalakoa izan da: askoz ere leku lasai eta baketsuagoa da hura. “Hemen jende guztia korrika dabil beti batetik bestera, nonbaitera iritsi ezinda ibiliko balitz bezala”, azaldu digu Gemak, “han jendeak beste patxada bat dauka”. Bestalde, “han jendea hemen baino errazago konformatzen da”, esan digu, “apalagoa da, ez da hemen bezain handimandi”. Argentinarren bizibideari buruz galdetu diegu, eta beraiek bizi diren lekuan langabeziarik behintzat ez dagoela esan digute, “hori bai, lanik gabe geldituz gero, gobernuak ez omen du inongo diru laguntzarik eskaintzen”. Jende gehienak *tamboetan* egiten dute lan, tailer batzuk ba omen daude, txikiak ordea.

### Oso harrera ona

Jexux eta Gemari oso harrera ona egin zieten herrian. Osabek ere urte dexente daramatzate han, eta horrek ere bidea erraztu omen zien. “Oso kuriosoak dira” esan digu Jexuxek, “eta berehala hurbildu zitzaizkigun”. Bestalde, kanpotarrak hartzen oso ohituta omen daude; kanpotarrak dira inguruko gehientsuenak: katalanak, frantsesak, ingelesak, alemanak... Beraien bizilekutik kilometro batzuetara bertakoak bizi diren lurralde bat ere ba omen dago, dena den oso gutxi dira, eta apenas daukate harremanik gainerako jendearekin.

### Gero eta euskaldun gutxiago

Gauza jakina da euskaldunek Hego Ameriketako herrietara, arrazoi ezberdinak direla medio, aspaldi joanak direla, Argentinan bertan euskaldun asko dago. Jexux eta Gemak inguruan bizi den Errialdeko beste fa-





*Jexuxen jaiotetxea atzean dutela*

milia batekin egoteko aukera dauka tartean. Beren bizilekutik 30 kilometrorra bizi den beste familia bat ere beraiek iritsi eta handik urtebetera heldu omen zien, baina urruti samar omen daude harremanik izateko. Santa Fe probintziako hiriburuan, Rosarioan alegia, bi Euskal Etxe daude: "Zazpiak Bat" eta "Centro Navarro", bata bestecaren parean gainera. Hasieran "Zazpiak Bat" baino ez omen zen existitzen, nonbait, nafarrak haserretu egin ziren ordea, eta euren kasa beste Euskal Etxe bat eraiki zuten. Jexux, Gema eta beren seme-alabak urtean behin biltzen dira bertan beste euskaldunekin, San gnazio eguncan hain zuzen ere. Jai egun handia izaten omen da. Gainerakoan euskarazko klaseak, dantza kastaroak eta bestelako ekitaldiren batzuk ere antolatzen dituzte probintzian bizi diren euskaldunentzat. Aitzakoa da beste zizurkildar ospesu bat ere, Pedro Mari Otaño alegia, arte askotan inguru haietan ibili zela, eta probintzia bereko Centeno herrian hil zela.

## **ale eta edale onak**

Ezer faltan botatzen al duten galdetu dieguncan ezin izan dute ukatu familia gauza handia dela, eta han so lagun onak izan arren, norbere familiarik bezalakorik ez dagoela. Ainerakoan, Euskal Herriko sagar-

dotegi eta taberna ugariak ez izan arren, han ere parranda egiteko beti omen dago pronto jendea. Hemen bezalaxe jai egunak, eta jan-edan oparoz lagunduta ospatzen omen dira, eta ospatu beharreko jaiak ez dagoenean beti izaten da han ere alkartzeko aitzakiren bat. Eta Jexuxek esan digunez, jatorduei dagokienez, hemengoak bezain oparoak eta gozoak dira hangoak.

Euskal Etxeak irekita jarraitu arren, Argentinako euskaldunak gero eta gutxiago dira. Gerra garaian joandako asko zahartu dira dagoeneko, eta beraiekin batera euskara. Bertaratutako euskaldunen belaunaldi berriek ez dute Euskal Herria ezagutzen, gurasoen erreferentzien bitartez ez bada; argentinarrak dira, eta Gema eta Jexuxen seme-alaben kasuan bezala, euskara ulertu arren, ez dute hitz egiten. "Auzoko guztiak gaztelera mintzatzen dira, lagunak, eskola...", azaldu digu Gemak. Hango gaztelera alabaina, ez da hemengoaren berdin-berdina. Ulertzeko batere arazorik ez izan arren, argentinarrak gaztelera eman dioten doinua ezberdina da, eta Gemaren euskarari ere nolabaiteko doinu berezia nabaritzen zaio.

Hilabete erdi egin dute lauek Zizurkil eta Asteasun. Orain dela hamabi urte joan zirenetik aldaketarik

nabaritu al duten galdetu diegu. Baserri asko berriitu eta bide berriak egin dituztela esan digute. Dena den, Argentinan zeudela ez dira hemengo batere berririk izan gabe egon. Anai-arrebek bideo zinta ugari bidali dizkiete urte hauetan, eta horiei esker herria poliki-poliki nola aldatu den ikusi ahal izan dute. Bestalde, telebista espainola ikusteko aukera daukate Argentinan, eta era horretan, gutxi edo asko, beti daukate hemengo herri. Beraiek ezezik, bere inguruko beste askok ere telebistari begira erne egoten omen dira Europako gertaerei jarraipena eginez, izan ere, asko dira "mundu berria" joan aurretik kontinente zaharrean gurasoak, anai-arrebak eta bestelako senitartekoak utzi zituztenak.

## **"Gure hemengo behiek ez dute inoiz horrelako belardirik ikusi"**

Jexuxen gurasoak orain dela lau urte egon ziren bertan familiari bisita egiten. Aitari galdetu diegu lurralde berri haiek zer iruditu zitzaizkion, eta bi aldiz pentsatu gabe, gehien txunditu zuena hango lur sail izugarriak ikustea izan zela esan digu: "Oso lur aberatsa da hura, ustiatu gabea gainera. Gure hemengo behiek ez dute inoiz horrelako belardirik ikusi", esan digu.

Artikulu hau kaleratzerako Jexux eta Gema beren etxean egongo dira, Argentinan. Jaioterrira itzultzeko asmorik ez ote zuten galdetu genien abiatzeko bezperan. Ez ziren erantzunik emateko gai sentitu. Gurasoak zeharka begiratu eta haiek herri hori gustora hartuko zutela antzeman genuen. Bestalde, Jexux eta bere familiarik bihotza bi kontinenteen artean banatuta daukala iruditu zaigu. Beraz, galderari zer erantzun ez zekite la gelditu ziren. Dena den, AIURRI behintzat itsasoz bestalde bidali eta jasoko dutela agindu diegu.



## Baratza, fruitu arbolak eta lorategia

Jakoba Errokondok era guztietako azalpenak eman zituen

**Jakoba Errekondo nekazal teknikariak ez zuen Asteasu-ko Kultur Etxean bildutako herritarrek egindako galdera bat ere erantzun gabe utzi. "Baratza, fruitu arbolak eta lorategia" izan zen hitzaldiaren izenburua.**

**Udaberri inguruan izan ohi diren fruitu arbolen inausketa, txertaketa eta lur aldatze lanei buruz hitz egin zuen gehienbat. Horrekin batera fruitu arbolei, eta sagarrondoei bereziki, egin beharreko tratamenduak izan ziren gairik nagusienak.**

**S**agastietan ohizkoak izan ohi diren hainbat gaitzen aurka, minbizia edota zorriak esate baterako, kobre sulfatoaren bidez egiten diren tratamenduari buruzko xehetasunak eman zituen Errekondok. Hala nola edozein fruitu arbolari, kimatu baino lehen, dagokion tratamendua eman behar zaiola azpimarratu zuen, eta ez alderantziz, normalean egiten den bezala. Apirila bukatu izan ohi da horretarako garairik aproposena, udaberri hasieran landarea indartsuago baitago. Dena den, sagarrondoen tratamendurako egokiena neguan olio zigtutzitza omen da. Era horretan olio estalkiak zorriek utzitako arrautzak ito egiten ditu eta udaberrirako arbola garbi egoten da.

Hala ere, eta orokorrean, fruitu arbolei eta landareei gehiegizko intsektikariak edota bestelako pozoien ematen omen zaizkie, "eta horrek guztiak gure giblean bukatzen du gero" esan zuen Errekondok, izan ere ongi bereiztu behar dira barazki edo fruitu batzuk eta beste batzuk: "Sagarrari pozoina bota eta handik

hilabete batzuetara jaten dugu, eta ordurako pozoien eragina desagertu egin da; tomateekin esate baterako, ordea, kontu handiagoz ibili beharra dago, pozoina bota eta handik astebetara jaten dugu eta".

Landareei dagokienez, uda aldean hartzen omen dituzte gaitzak, beroa eta hezetasuna nahasten direnean. "Puntu lizun horiek ikusten hasi bezain laster eman behar zaie tratamendua, berandu baino lehen", horixe izan zen Errekondoren aholkua.

### Leku aldatzeak

Landareak lekuz aldatu aurretik zainei ongi begiratu behar zaie. Moztean oso kontuan hartu beharra dago kendu behar direla hostoak ere. Lur berriaren inguruan erreten bat egin eta lur beltz edo hondarrez betetzea aholkatu zuen Errekondok. Landarea lekuz aldatzean kaskarragoa iruditu



*Arbola loratu berria*

arren, magnoliaren kasuan esate baterako, handik bi edo hiru urtera berriindartutu egingo da eta beti da mesedegarri.

Txertaketei buruz ere aritu ziren solasean batzuk eta besteak. Abuztua da lan horretarako garairik aproposena. Halaber landare berriak erostean zein txertoren gainean egin dauden jakitea omen da garrantzitsuena, txertoaren arabera haziko baita era batera edo bestera landarea, eta abiada ezberdinaz gainera.

Azkenik, bertako eta kanpotik ekarritako landare eta fruitu arbolei buruz hitz egin zuen Errekondok, hain zuzen ere, kanpokoekin izan behar den arreta berezia aipatu zuen, klima aldaketa dela eta, behar bezala hazteko. Laranjondo eta limoindoen adibidea jarri zuen.

**FRANCISCO MENDIKUTE**  
**BARATEGIA**

Kale Txiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

**GARAJE**  
**EXIN**  
**AUTO KONPONKETA**

MEKANIKA • ELEKTRIZITATEA • GURPILAK

ELBARRENA AUZOA - 15.POL.  
☎ - FAX 69 26 84 ZIZURKIL



Asteasu

## Begoña del Valle margolaria

Euskal Herriko margolaritzan abangoardiako artista

Lagun onak oparitutako album batean bilduta dauzka margo laritzan eman dituen urratsak argazki eta egunkari artikuluetan bilduta, eta hain zuzen ere album horri begira ezagutu dugu Begoñaren pintura eta baita Begoña bera ere. Aitak animatu zuen hamahiru urte zituela eskolan margotzen jarraitzea. Hasierran baserriak, erretratoak eta bodegoiak bezalako irudi errealista-kostunbristak margotzen zituen. Oso erretratari ona da Begoña eta garai batean eskari mordoak izaten omen zuen. "badakizu, jendea oso harroa da", azaldu digu. Dena den berak ez ditu inoiz oso gogoko izan: "Jendea ez da inoiz bere erretratuarekin konforme gelditzen, beti dena baino zaharrago edo itsusiago margotu dutela iruditzen zaio". Dena den, erretratuak ongi saltzen omen diren pintura bakarrenetakoak dira, eta bera ere horretara behartuta egon omen da batzuetan.

**"Erretratuak ez ditut inoiz gogoko izan"**

Arte figuratiboa arin utzi zuen, hain zuzen ere, berak margotu nahi zuena margotzeko begi aurrean edukirik behar ez zuela konturatu zenean, hau da buruz margotzen hasi zenean. Horixe izan omen da bere pinturak eman duen saltorik garrantzitsuena. Bere irakasle eta lagun den Javier Urquijok eraman zuen horretara: "Horixe izan da arterantz, askasunerantz eman dudak pausorik nagusiena, eta horixe saiatu naiz nire ikasleei erakusten".

### Urrats berriak

Surrealismora jo zuen ondoren, hau da errealitatetik urruntzeko beste urrats bat eman nahi izan zuen, edota agian egiazkoagoa iruditzen

Orain dela bi urte etorri zen Begoña del Valle margolari bilbotarra bere familiarekin Asteasura, Tximelane etxera. Azken bolada honetan altzariak berriztatzen ari da bere senarrarekin batera, hala ere, hamahiru urte zituela margotzen hasi zenetik inoiz ez ditu mihiseak eta pintzelak baztertu, horixe baita bere benetako zaletasuna. Zaletasuna edo grina, Begoñak pasioz margotzen baitu, asko margotu ere. Bizitza margotzen eman du, eta margotu ahala uzten ari da hamaika koadroetan bete-betean bizi duen bere bizitzaren aztarnak. Marra zirriborrotsuak batzuetan, zuzenak beste batzuetan; lehiati egiten du beti ere Begoñak lan.



Estudioan

zitzaien errelitate baterantz abiatu zen. Aurkitu, zer aurkitu zuen ez dakigu zehazki, baina Begoñak berak dioen bezala "saiatuz gero, azkenean beti aurkitzen da, eta bidean ez da huts egiteko beldurrik izan behar". Halaxe jardun da Begoña, bila eta bila, mihiseak beldurrik gabe, ausardiarekin marrazten, zirriborrazten. Zuri beltzean margotu zuen garaiak ere izan zuen, beharbada, garai hartan dena iruditzen zitzaioala zuri ala beltz.

Espazio eta hutsarteetan aurkitu zuen geroago inspirazioa, ilargiko paisaiak gogorarazten dituzten margoetan. Bere azken margoetan marra zuzenak eta angelu zorrozduen formak nagusitzen dira. Begoñak bide

luzea egin du lehenengo baserri haiek margotu zituenetik. Bilbon zeuden bi irakasle bakarrak izan omen zituen gaztetan, baina berak bakarrik jorratu du batez ere bidea, berak erabakitako bidea.

**Txuri guneez probokatuko balute bezala**

Tximelane goitik behera ikusi ondoren ulertzen da pinturak emakume honen eguneroko bizitzan zein leku garrantzitsua betetzen dute. Etxean ez dago koadrorik gabe apaingutako hormarik; are gehiago, zaila da zuri



gunerik aurkitzea. Espazio zuriek margolaria probokatu egiten dutela ematen du, etxeko txoko bat baino gehiago dago era orijinalenean margotuta. Pintura sintekoa erabiltzen du Begoñak margotzeko: "Pintura modernoa egiteko baliabide modernoak erabili behar dira". Areografoa ere asko erabiltzen du.

## Erakutsi eta saldu

1973. urtean hasi zen erakusketak egiten, Urquijo lagunak animatuta. Erakustaldi ugari egin ditu geroztik, abangoardiako erakustokietan beti. Hurrengo erakusketan Donostian egiteko asmoa dauka, dena den era horretako galeriak aurkitzea gero eta zailagoa dela aitortu digu, galeriak beraiek ere desagertzen ari baitira. Ez omen du erakus-

ketak egiteko margotzen: "Neuretzat margotzen dut". Hala ere, beti omen dago ukatu ezin zaion galeriaren baten edo lagun baten eskaria. Begoñak sari garrantzitsuak ere irabazi ditu. Erakusketen ondoren izaten dira normalean salmentak, baina "gaur

egun pintura saltzea mirakulua da" esan digu "arrunta ez den zerbait saltzeko jai daukazu!".

## "Honez gero ez nago amore emateko garaian"

Erakusketa, galeria eta salmentatik urrundu samarra dagoela iruditu zaigu, hala ere, "dezepzionatu sama-



*Paisaiak, errealak nabiz irudimenezkoak, oso gogo ditu*

rra ere banago, mundu honetan hasieran uste baino *tropa* gehiago dago". Eta Begoña iritsi den tokira iritsita, ez zaigu amore emateko moduan dagoenik: "Kontsesioak egiten hasiz gero, akabo!" azaldu digu beti bezain esanguratsu eta erabakior.

## Irakasle

Margotzeaz gain, margotzen erakustea du Begoñak oso gogoko. Bilboko parte zaharreko gela batean erakusten hasi zenetik beti izan du ikasleren bat, eta beraien artean den jentio handikoak, esan digunez. "Oso era berezian erakutsi izan dut nik beti" kontatu digu, "nik istorioak kontatu, eta bitartean beraiek imajinatzen dutena margoarazten diet nire ikasleei, alegia irudimena libre utziz, memoria landuz". Gaur egun eskoletako irakasleei gustora erakutsiko liekeela aitortu digu, haurrei behar bezala margotzen erakusteko".

Egindako bidea ez omen da guztiz laua izan: "Emakumezkoa baldin bazara, eta isilik geratzen ez den horietakoa gainera, beti dago norbait behaotztopo eginarazteko prest". Begoña del Valle ez da ordea, kokiltzen den emakume horietakoa, "beti arrikatu egin behar da". Baten batek ere guk baino lehenago mirestu du ezaggarri hori Begoñarengan eta Bilbon "Urteko emakumea" izendatu ere.

Bi orduko elkarrizketa Begoñarekin egin ondoren bere erretratua hitzez egiten saiatzea arrisku handiegia ez ote den galdetu diogu geure buruari hasieran, baina kasu honetan berak erakutsiko biderei jarraitu diogu, begiak itxita, esaldi batzuk gogoan, Begoña del Valleren erretratua egiten saiatu gara bizilagun dituen herritarrek hobetoxeago ezagut dezaten.

OCTAVIO CANORA  
Dr. Huizi, 8 behea  
ANDOAIN

# PAPIRO

KALITATE HAUNDIKO  
KOADERNAKETAK

**Ikatza**  
Taberna

*GIRORIK JATORRENA !!*


Larramendi, 19 - ☎ 59 41 89 ANDOAIN

# BENGOETXEA

*Aukeratu zure gida karneta*


VILLABONA ☎ 69 00 57

ANDOAIN ☎ 59 44 06





## ARGITALPENAK




**Mikel  
Laboa**

**AEK - ELKAR**

Aurtengo Korrikak Mikel Laboari eskaini dio omenaldia. Hori dela eta argitaratu dute AEK erakundeak eta Elkar argitaletxeak Mikel Laboaren kantua, bizitza eta zenbait idazleen poemak biltzen dituen liburua.

Koloretako argazkiek, kartelek eta bestelako ilustrazioek osatzen dute gehienbat liburua. Kantariarekin batera azkenengo urteotan euskal kulturaren protagonistak izan diren hainbat eta hainbat pertsonaia ezagun agertzen dira argazkietan. Horrekin batera abeslariaren biografia eta diskografia ere aipatzekoak dira. Hala nola eskainitako kantaldi ugariak iragarri dituzten kartelak. Kantuak euren partitura eta guzti agertzen dira liburuan. J.A Artze, Xabier Montoia, Joseba Sarrionandia, Manuel Maria, Raimon, Bernardo Atxaga eta Itxaro Bordaren poemek osatu dute, gainera, argitalpena.

“Musikan ildo zaharretan gerorako ereintzen ari den kantaria, lehengo eta oraingo herri musikaren zubia, herri musikaren erroetatik gure oraingo eta geroko arbolaren lorak erretzen ari dena” horiexek izan ziren Jose Antonio Arana Martija euskaltzainak Euskaltzaindiaren egoitzan liburua aurkeztu zuten egunean abeslariari buruz esandako hitzak.



**Mila Elorde**  
**Zentro jatetxea**  
**Zizurkil**

## TRUFA TARTA

**Bizkotxoa egiteko osagaiak:**

- 4 arrautza
- 50 gr. azukre
- 100 gr. txokolate zuri
- 100 gr. txokolate beltz
- 50 gr. gurin
- 30 gr. irin

**1-Txokolatea eta gurina urtu eta beratzen utzi.**

**2-Arrautzak azukrearekin batera harrotu eta txokolatearekin nahastu.**

**3-Irina gehitu eta moldean bota.**

**4-Labean sartu 150 gradutan 20 minutuz.**

**Trufak eta osagaiak:**

- 100 gr. txokolate
- Kikara bat esne
- 200 gr. esnegain

**1-Txokolatea esnetan urtu eta hozten utzi.**

**2-Esnegaina harrotu eta txokolatea bota.**

**3-Bizkotxoari gainetik likorea bota eta trufaz estali.**

**Estalkia egiteko sagaiak:**

- 100 gr. txokolate beltz
- 75 gr. gurin

**1-Txokolatea gurinarekin batera urtu, eta tarta estali.**



**XIXORI**

**BELARDENDA**

DIETETIKA ZENTRUA  
KONTSULTA NATURISTA

Ondarreta, 9 - TELF. 59 01 99 - 20140 ANDOAIN



**HERCULES**

Aseguruak ARGENTARIA

*Amaia Kortajarena*

Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxe 69 37 34

**ZIZURKIL**



## Etorkizuna borrokatu

Andoaingo Jarraik martxoaren 24ean Andoaingo EGik kaleratutako "komunikatu politikoari" erantzunez zera adierazi nahi du:

Egoera sozioekonomiko larria ikusirik Jarraik aurrera eramandako kanpainan salatutako errudunen artean sortutako erreakzioa barregarria eta lotsagarria iruditzen zaigu, jakina baita egoerak duen garrantzia eta beraiek horren guztiaren aurrean duten erantzukizuna.

Benetan zinikoa iruditzen zaigu egunero Andoaingo gaztediarekin eta gaztediaren alde lan egiten duzuela eta zuen ahalegin guztiak hortan jartzen dituzuela entzutea. Ze kontaktatu mantentzen duzue Andoaingo gaztediarekin? Zein da zuen lana, euskal langileari egiten dituen mobilizazioak zuen zipaioak erprimitzera bidaliz? Euskal langilearen lana eta izerdiari ahal duzuen etekin gehiena ateratzea? Edota zuen hurrengo "txantxulloa" (tragaperrak...) zein izango den pentsatzen jardutea?

Hau da zuen alderdiak euskal ekonomia "hobetzeko" egiten duen lan guztia, eta noski zuek zuen probetxurako antolatu duzuen ustelkeria guzti honen biktimak gara, baina ez gu bakarrik zuek ere kapitalismo basati honen biktima batzuk besterik ez zarete, zuen burua salduz, bizitza konpontzea beste guztia gainetik jartzen baituzue.

Krisi ekonomiko basati honen erantzukizuna nola bota diezaioketue Euskadi Ta Askatasuna erakundeari? Zenbat enpresa itxi dira ETaren eruz? Eta zenbat EAJ alderdiak daraman politika ekonomikoaren eruz?

Baina ez daukagu eskutitz guda batean erortzeko inongo gogorik, eta zuen debate gonbiteari erantzunez zera aipatu nahi dugu: Nola azal zaitezket hitz egiteko honenbesteko predisposizioarekin? Gogoan al duzue Andoaingo Jarraik hain garrantzitsua den intsumisioa gaiaren inguruan antolatutako debategonbidatutako erakundeetatik azaldu ez zineten bakarrak izan zinatela?

Eta noski euskal gaztediarenaz gain, arazo guztietaz hitz egiteko prest azaltzen gara, herriaren eta komunikabideen aurrean.

Bera, eta zuen hitzak airean geratuko ez direlakoan, zuen konbokatoriaren zain geratzen gara.

**Andoaingo JARRAI**

Zuen gutunak atal honetan argitara eman nahi izanez gero, derrigorrezkoa da, izen-deiturak eta NA zembakia adieraztea.

## Posible ote da Gabarain jauna?

"Kanpaina desegokia eta antidemokratikoa" posible ote da...? Joxean Perez Gabarain PSE-EEko alkategaiaren iritzia interes eta gogo handiz hasi naiz irakurtzen; harriduraz, izenburua irakurri ondoren adjetibo DESKALIFIKATIBOak barra-barra aurkitu ditut esanahi politikoz gainezka osatuta dauden esaldi gehiengutan. Lotsa eta haserre sentimendu mikatz batek asaldatu nau; posible ote da...?

Nire bizitza labur eta apal honetan hizkuntzari dagokionez behin eta berriro marginatuta eta baztertuta sentitu naiz: *¿Cómo dices, me lo repites en castellano?*, "No te entiendo", "Habla en cristiano, casero". Hala ere tristeena eta gogorrena gure alkatearengandik horrelakoak entzutea da. Eta oraindik gu garela marginatzen dugunak entzun behar, hori da aurpegia!

Gabarain jauna argitu nahiko nizuke ALKATE EUSKALDUNARENA ez dela kanpaina huts bat, andoaindar askoren nahia eta islada baikik; hori al da ANTIDEMOKRATIKOA izatea?

Bestalde, nazkatuta nago beti horrelako jarrera ERRADIKAL eta INTRANSIGENTEEN aurrean euskaldunok hamaika argudioekin defendatu beharraz, zuek, euskararen normalkuntzaren AURKA zaudetenek, deskalifikazio hutsak kaleratzen dituzuen bitartean.

Bukatzeko aitortu beharrean nago kezkatutik geratzen naizela zuen arteko paktuen esku, eta ez herritarren esku geratzen baita Andoaingo etorkizuna.

**Juani Lizaso**  
**EHEko kidea**



**MAPFRE**

**ASEGURUAK**

ZURE  
AURREZKIENTZAKO  
MAPFRE  
SUPERKONTUA

ERRETENTZIORIK  
GABE

Xabin Mujika Tolaretxipi

Kale Berria, 11 - ☎ 30 06 99  
Dr. Huizi kalea, 4 - ☎ 59 23 07  
Faxa 30-00-85  
**ANDOAIN**

**OGI ZURI**

Okindegia

ZURI ZURIA...

Lizarra kalea, 32  
☎ 69 18 96 ASTEASU

**OGI-GOXO**


Okindegi eta Gozotegia

EDO BELZTUXEAGOA,  
BAINO GOXO  
GOXUA!!

Kale Nagusia, 26  
☎ 69 32 94 BILLABONA

**ALUSTIZA** baserria

☎ 943 - 69031 20150 AMASA



**NEKAZALTURISMOA**  
**J A T E T X E A**



# Agenda

## IKASTAROAK

### ASTEASU

**Zumeagintza ikastaroa.** Astean arratsalde batean. Prezioa: 800 pezeta hilean; langabetuek 200 pezeta. **Ainhoa: 69 39 30.**

**Gimnasia klaseak.** Prezioa: 800 pezeta hilean; langabetuek 200 pezeta. **Ainhoa: 69 39 30.**

### ZIZURKIL

**Txistu ikastaroa** Kultur Etxean.

## HITZALDIAK

### ADUNA

**Apirilak 20 eta 26:** Jakoba Errekondok **barazki, fruitu arbola eta lorategiei buruz** hitz egingo du.

### ZIZURKIL

**Apirilak 19:** Eskarne Irastorzak **janari konjelatuei buruz** hitz egingo du Iriarte Etxean 4.30etan.

**Apirilak 28:** San Millango guraso elkarteak antolatuta **"Euskal umorea"** izenburupean Kiķe Amunarriz, Antton Olariaga eta Mikel Mendizabal arituko dira solasean.

## MUSIKA

### BILLABONA

**Apirilak 28:** Javier Muguruza eta bere taldeak bere azken diskaren aurkezpena egingo du Gurean 22.00etan.

## LEHIAKETA

### BILLABONA

**Bertso eta ipuin lehiaketa:** Sarike-ta honetan Billabonako haurrek edo bertako ikastetxeetan ikasten ari diren hau-

rrek har dezakete parte, erdi eta goi zikloetakoak. Gaia librea dute, eta baita neurria ere erdi ziklokoek. Goi ziklokoek bi orrialdeko ipuina egin behar dute gutxienez eta lau estrofako bertsoa. Apirilaren 25ean amaitzen da lanak udalerean entregatzeko epea.

## ANTZERKIA

### BILLABONA

**Apirilak 22:** Jake-Mate antzerki taldeak **haurrentzako "Joku-Moku"** saioa eskainiko du Gurean 12.00etan.

## IKUSENTZUNEZKOAK

### BILLABONA

**Apirilak 25:** Javier Fernandezek **"Picos de Europa"** eta **"Patagonia"** lanak aurkeztuko ditu Gurean 20.00etan.

### LARRAUL

**Apirilak 28:** Javier Juanesen **"Ekialdetik Euskal Herrira"**.

## ERAKUSKETA

### BILLABONA

**Apirilak 24-30:** Euskal pilota erakusketa ibiltaria Gurean.

## ZINEMA

### GUREA ZINEMA BILLABONA


"Quemado por el sol"  
"Leyendas de pasión"  
"Nell"  
"Cadena perpetua"

## Aste Santuko elizkizunak

Erramu igandeko eta astearte santuko elizkizunak igaro ondoren, ostegun, ostiral eta larunbat santuko eliz ospakizun ugari izango dira ondorengo egunetan.

Andoainen San Martin, Santa Krutz eta Sorabillako elizetan ospatuko dira euskaraz nahiz erdieraz elizkizunak. Asteazkenean barakamenaren ospakizuna izango da 20.00etan, ostegunean azken afariaren oroimena 19.00etan eta ostiralean gurutze bidea 19.30etan Buruntzara eta Santa Estebanera 21.00etan eta 22.30etan elizan bertan. Larunbatean gau beila ospatuko da.

Billabonan ere ospakizun bereitsuak izango dira Amasako Tourseko San Martin elizan eta Jesusen Bihotza parrokian. Zizurkilen Arantzazuko Ama parrokian eta San Millan elizan izango dira elizkizunak ohizko orduetan. Haurrentzako saio bereziak izango dira goizean eta helduentzat arratsaldean. Asteasu eta Larraulen A. Agirretxe apaizak eskainiko ditu "Zergatik ez entzun Jainkoaren hitza Garizuman?" izeneko hitzaldiak astelehen, astearte eta asteazkenean. Asteasun arratsaldeko 15.30etan izango dira eta Larraulen 17.00etan. Segidan ospatuko dira elkarrekin egindako aitortzak. Ostegun santuan arratsaldeko 8.30etan gaisoen taldekoek pazko prestakuntzarako bilera egingo dute.





# AIURRI

BETERRIKO  
ALDIZKARIA



**M. LARRAMENDI**

*Kultur bazkunak  
Argitaratzen du*

## UDALEN BABES ETA LAGUNTZAREKIN

ANDOAIN




BILLABONA



ZIZURKIL




ASTEASU



LARRAUL



ADUNA





# BEIBATEGI


J A T E T X E A

Bulandegi bidea z/g ☎ 69 21 78 ZIZURKIL



- Eguneroko menua edo kartara
- Jaunartzeak
- Bataioak

Berezitasuna  
Entsalada epela



# URBIETA ANAIAK



## KALITATEZKO SU EGURRA

- Neurrira moztuta eta urte osoan
- Haritza eta pagoa
- Etxerainoko zerbitzua

Larraulgo plaza, etxeberri etxea, 1 - ☎ 69 35 76 - LARRAUL